

## Rusoak eta askatasuna

*Deia, 1977-07-07.*

Ez dut "komunistak" esaten, "rusoak" baizik.

Lehen, komunista guziak rusoak edo kidekoak izan ohi ziren, baina gaur rusoak, txinoak, eurokomunistak, yugoslabitarrak eta errumanitarrak bereizi beharreak aurkitzen gara, gutxienez.

Ez da urte asko marxismoak kapitalismoari honek harra bezalakotsu barne "kontrarikzio" bat zeukela botatzen ziola; ziotenez, kapitalismoak elkar onartu ezin zituen auzi larri batzuk zituen, eta, aitzitik, marxisten munduan honelakorik ezin zen gerta.

Historia laburra dutenen bentaja da hau.

Hau egia osoa eta borobila zen garaia joana da, ordea.

Rusoak dira marxismoaren bilakerarako aukera luze eta aberatsena izan dutenak; hirurogei urtean izan dute aizatu dituzten giza-eskubideen teori guztiak edo gehienak egiztatzeko aukera.

Zerbaitetan asmatu dute, noski; baina egia nabarmena dena, askatasun alorrean ez dutela ezer lortu.

Ez gizon mailan, eta ezta herri mailan ere.

Hara hemen berria: Sobiet herriko fiskalak zazpi eta hamar urteko zigor-lanak eskatu ditu bi gizonentzat.

Hoietako bat, 56 urteko idazle bat da: Mikola Rudenko.

Honen pekatua? Helsinki-n 1975an, Sobietarrak berak ere tarteko zirela, onartu ziren giza-eskubideen aldeko talde baten sortzaile izatea. Bigarrena, Oleska Tikky, unibersitateko irakaslea da, eta Rudenko-ren lan-kidea.

Rusoak ilargira heltzeko aurrerapen haundiak egin dituzte.

Baina zertarako ditu gizonak aurrerapen teknikoak, norbera izateko askatasunik ez badu?